

## SINADURAK JASOTZEKO GIDALIBURUA

### Aurkibidea

<b>Sarrera</b> .....	<b>1</b>
Sinadurak jasotzeko mahaiak jartzea .....	2
Ikastetxeetan nola antolatu .....	2
Ikastetxeetatik kanpo nola antolatu .....	2
Sinadurak entregatzeko .....	3
Materialen zerrenda.....	3
Komunikazio digitala .....	3
<b>Ohiko galderak</b> .....	<b>3</b>
<b>Mezu ereduak</b> .....	<b>5</b>
Email mezua .....	5
Whatsapp/Telegram mezua.....	5
Sare sozialetarako mezuak.....	5

### Sarrera

Euskalgintzaren Kontseiluak eta bazkideok, beste eragile sozial eta sindikalekin batera, EAEko Hezkuntza Lege berriaren prozesua abiatu zenetik hizkuntzaren korapiloa askatzeko ekarpenak egiten aritu gara azken urte eta erdian.

2023ko irailaren 12an «[Hezkuntzak euskara gehiago behar du](#)» sinadura bilketa aurkeztu genuen Euskalgintzaren Kontseiluak, hezkuntzako eragile Euskal Herriko Ikastolak, EHIGE, HEIZE eta HIKHASIK, eta ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek.

Sinadura bilketaren helburua Eusko Legebiltzarrari Hezkuntza Lege berrian ikasle guztientzako euskarazko ikasteredu orokortua –murgiltze eredu– jaso dadila eskatzea da, hau da, euskara izan dadila hezkuntza sistemako ikas- eta irakas-hizkuntza normalizatua. Halaber, beste bi eskaera ere jasotzen dira: euskal kultura izan dadila hezkuntza curriculumaren ardatza, eta hezkuntza ez-arautua ere osorik euskaraz garatzea.

Sinadura bilketa irailaren 12tik urriaren 15era luzatuko da, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 16 urtetik gorako herritarrek sinatu ahal izango dute, bi modutara: presentzialki, sinatzeko jarriko diren mahaietan, edo [www.euskaragehiago.eus](http://www.euskaragehiago.eus) webgunean online.

Gida honetan sinadura bilketa presentziala ikastetxe guztietara –eta ikastetxeetatik kanpo ere– eramateko irizpide eta azalpenak jasotzen dira. Hau da, nola antolatu sinatzeko mahaiak eta ondoren zer egin jasotako sinadurekin. Zalantza, galdera edo bestelako beharrik izanez gero, idatzi [hezkuntza@kontseilua.eus](mailto:hezkuntza@kontseilua.eus) helbidera edo deitu 670 08 74 88 telefonora.

## Sinadurak jasotzeko mahaia jartzea

Mahaia jartzea oso erraza da: edozein ikastetxetan, ekimen publiko zein kalean mahai bat jarri, sinadurak jasotzeko fitxak inprimatu ([jaitsi hemen](#)) eta jendeari sinatzera animatu, besterik ez. Eskuineko argazkian adibide bat duzue.

Komeni da jende asko mugitzen den orduetan (gurasoak haurren bila doazenean, etab.) mahaiaren atzean pertsona bat edo bi egotea, eta aurretik sinatzeko hitzordua komunikatzea kartel mutuekin, inprimatu eta pegatuta edo mezu bidez zabaldua ([jaitsi hemen](#)).

Gainerako momentuetan, sinatzeko mahaia erraz ikusi daitekeen toki batean utzi daiteke, eta jendeak bere kabuz sinatzeko kartelak jarri ([jaitsi hemen](#)). Mahaietan material gehigarria ere jarri daiteke, hala nola, kartel orokorrak, eskuorria argudioekin, adierazpena, saretarako edukiak, edota kanpainako globoak (haurrei banatzeko).



Inprimatzeko material guztia [euskaragehiago.eus](http://euskaragehiago.eus) webgunean dago eskuragarri (globoak izan ezik), izen bereko atalean, eta oinarrizko materiala ikastetxe edo eragile bakoitzak inprimatu beharko du. Materiala inprimatzeko aukerarik ez duenak [hezkontza@kontseilua.eus](mailto:hezkontza@kontseilua.eus) helbidera idatzi dezake eta irtenbidea bilatzen saiatuko gara.

Azkenik, online sinatzeko informazioa ere zabaldu daiteke, izan **zuzeneko komunikazio kanaletatik** (email zerrendak, whatsapp taldeak...) zein **sare sozialetatik**. Saretarako euskarri digitalak [hemen jaitsi](#) daitezke. Sare sozialetatik sinadura bilketaren berri emateko, kartelak, zuek egindako talde argazkiak, bideoak etab. igo ditzazkezue eta **#EuskaraGehiago** traola erabili. Argazki eta bideoak goiko bidaliz gero edo Euskalgintzaren Kontseilua etiketatuz gero, guk ere zabalduko ditugu.

## Ikastetxeetan nola antolatu

**Irakaslea bazara**, jarri harremanetan gainontzeko lankideekin, eta, posible denean, zuzendaritzarekin eta guraso elkarteekin ere. Elkarrekin, sinadurak jasotzeko mahaia antolatzeaz arduratuko dira: noiz jarri, nork zaindu eta abar.

**Zuzendaritzako kidea bazara**, antolatu irakasle taldearekin eta bidali gurasoei sinadura bilketaren berri emateko mezuak emailaz, whatsappaz edo biderik aproposena erabiliz (behean ereduak).

**Gurasoa bazara**, eskolako zuzendaritzarekin eta langileekin harremanetan jarri ahalko dira mahaia elkarrekin antolatzeko, edota guraso taldeen whatsapp taldeetatik kanpainaren zabalpena egin ahal izango dute.

## Ikastetxeetatik kanpo nola antolatu

Ikastetxetik kanpo sinadura bilketarekin lagundu nahi duzun **norbanako, euskaltzale, elkarte bateko bazkide, euskaltegiko ikasle edo irakasle bazara**, zure ekarpena egiteko aukera ere izango duzu.

Alde batetik, sinadurak presentzialki jasotzeko mahaia jarri ditzakezu zure lantokian, espazio publikoan, plazan, kalean edota ekimen jendetsuetan. Material guztia [euskaragehiago.eus](http://euskaragehiago.eus) webgunean aurkituko duzu. Aukera izanez gero, zure herri edo auzoko beste eragileekin

harremanetan jartzea interesgarria izan daiteke (ikastetxeak, euskara taldea, euskaltegia, sindikatuak...) esfortzuak bateratze aldera.

Bestalde, zure lagun, senide edo harremani online sinatzeko informazioa zabaldu diezakezu, Whatsapp bidez, emailaz edo sare sozialak erabiliz. [Hemen](#) mezu eredu batzuk.

## Sinadurak entregatzeko

Sinadura bilketaren azken egunetan, presentzialki jasotako sinadurak guri helarazteko azalpenak igo eta formulario bat irekiko dugu [www.euskaragehiago.eus](http://www.euskaragehiago.eus) webgunean.

Bestela, emailaz bidali ditzakezue ondorengo emailera: [hezkontza@kontseilua.eus](mailto:hezkontza@kontseilua.eus)

## Materialen zerrenda

**Oinarrizko materialak** hauek dira:

- Sinadurak jasotzeko fitxa (A4): [Jaitsi](#)
- Boligrafoak: norberak jarriak

**Material gehigarria** (aukerakoa):

- Kartel mutua (A4): [Jaitsi](#)
- Kartel guztiak (A4, A3): [Jaitsi](#)
- Eskuorria argudioekin (A5): [Jaitsi](#)
- Adierazpena (A4): [Jaitsi](#)
- Sare sozialetarako edukiak (Instagram, Twitter, Facebook...): [Jaitsi](#)
- Globoak: eskatu [hezkontza@kontseilua.eus](mailto:hezkontza@kontseilua.eus) helbidera

## Komunikazio digitala

- **Email zerrendetara** bidaltzeko mezua (langileei, gurasoei...): [Hemen](#)
- **Whatsapp/Telegram** bidez zabaltzeko mezua (lankideei, lagunei, gurasoei...): [Hemen](#)
- **Sare sozialetatik** zabaltzeko mezua: [Hemen](#)

## OHIKO GALDERAK

### → Zer ari naiz sinatzen?

Eskaera honen bidez Eusko Legebiltzarreko kideei eskatu nahi zaie EAeko Hezkuntza Lege berriak honako hiru puntuak jaso ditzala:

1. Euskara ikas- eta irakats-hizkuntza izango duen eredu orokortu inklusiboa.
2. Euskal kultura ardatz izango duen euskal curriculumua.
3. Hezkuntza ez-arautua osorik euskaraz garatzea.

### → Zein da sinadura bilketa honen helburua?

Sinadura bilketa honen helburu nagusia EAeko Hezkuntza Lege berrian eragitea da, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza-sistema osoan euskara ikas- eta irakats-hizkuntza normalizatua izan dadin eta, horretarako, Hezkuntza Legeak euskarazko ikasteredu orokortu inklusiboa jaso dezan. Bide horretan, jendartean euskararen aldeko jarrera sustatu eta ikas komunitatean euskarazko ikasteredua orokortzearen aldeko iritzia ere bultzatu nahi dugu.

### → Nondik sortzen da sinadura bilketa hau?

2022ko abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, EAEko Hezkuntza Lege berriak jaso beharreko hiru neurri jasotzen zituen «[Euskara eta euskal kultura, etorkizunaren ardatz](#)» adierazpena aurkeztu zen Bilbon, hezkuntzaren, kulturaren eta euskararen munduko 211 adituk, sortzailek eta profesionalak sinatu zutena.

Aurrekari horretatik abiatuta, Euskalgintzaren Kontseiluak sinadura bilketa honi ekin dio, Euskal Herriko Ikastolak, EHIGE, HEIZE eta Hik Hasi hezkuntza eragileen eta ELA, LAB eta STEILAS sindikatuen laguntzarekin.

### → Sinadurek balio legala izango dute?

Ez, sinadurek ez dute balio legalik izango. Presio eta kontzientziazio kanpaina bat izango da, eta sinadura kopuruak eskari hauen indar soziala erakutsiko dute. Beraz, zenbat eta sinadura gehiago lortu, euskararen alde eragiteko gaitasun handiagoa izango dugu.

### → Zer egingo da sinadura hauekin?

Sinatzeko epea bukatzerakoan, sinadura fisikoak eta digitalak bateratu, errepikatutakoak ezabatu eta zenbaketa egingo dugu. Sinadura kopuru totalaren berri emango zaie hedabideei, bai eta Eusko Legebiltzarreko kideei eta bertako talde politikoetako arduradunei. Ondoren, sinadura orriak suntsitu eta datu basea ezabatuko dugu.

### → Aurrerago kanpainak jarraipena izatea aurreikusten da?

Urriaren 15etik aurrera sinadura bilketaren emaitzaren aurkezpen publikoa egingo dugu. Emaitzaren arabera, ekimen edo mobilizazio berriak deitzea aztertuko dugu.

### → Zergatik sinatu eskaria?

Hona hemen euskarazko ikasteredu orokortuaren aldeko sei arrazoi:

1. **Euskara ikastea eskubide kontua delako.** Herritar guztiek dute euskara ezagutzeko eskubidea, edozein izanik ere haien bizitokia, egoera sozioekonomikoa, jatorria edota ingurune soziolinguistikoa. Gaur egungo hezkuntza sistemak ez du eskubide hori bermatzen, eta onartezina da milaka haur eta gazte euskara gaitasun nahikorik gabe uzten aritzea.
2. **Euskara gutxiago duenari gehiago eman behar zaiolako.** Etxetik euskara jasotzen ez duten edo zaugarritasun soziolinguistikoa handiagoa duten ikasleei arreta berezia eta behar bezainbeste baliabide eskaini behar dizkie hezkuntza sistemak.
3. **Ikasleak euskalduntzeko eredu arrakastatsuen delako.** Datuek erakutsi dute ikasle euskaldun eleaniztunak sortzerako orduan arrakasta gehien izan duen hezkuntza eredu dela euskara ikas- eta irakats-hizkuntza duena; D eredu, alegia.
4. **Kultura ere eskubidea delako,** eta kalitatezko hezkuntzaren bidean, ezinbestekoa da euskarazko kulturgintzaren transmisioa bermatzea, gizarte-kohesiorako elementua baita.
5. **Euskara bizikidetzaren giltzarria delako.** Euskara ezagutzea, aberastasun bat baino gehiago, belaunaldi berrien aukera berdintasunean zuzenean eragina duen elementua da, izan garapen profesionalari begira zein eguneroko bizitza sozialean ere.
6. **Euskarari etorkizuna eskaintzeko.** Globalizazioak homogeneizazio azeleratua ekarri eta bizitza erabat digitalizatu zaigun testuinguru honetan hizkuntza gutxituei zaildu egin zaie bizirik irautea. Euskara ez da salbuespena. Hezkuntza da euskararen transmisioa ziurtatzeko eta euskarari etorkizuna eskaintzeko bidea. Eta, aldi berean, hurrengo belaunaldiek etorkizun bizigarria izango badute ezinbestekoa da egungo homogeneizazio joera arrakalatu eta, arlo denetan, dibertsitateari eustea. Euskara da dibertsitateari egin diezaiokegun ekarpenik handienetakoa.

## MEZU EREDUAK

### Email mezua:

Kaixo:

Hezkuntza komunitateko eragileek, sindikatuek eta euskalgintzak sinadura bilketa bati ekin diote, EAEko Hezkuntza Lege berriak euskara eta euskal kultura ardatz izan ditzala aldarrikatzeko. Hauek dira legeak jaso ditzala eskatzen diren puntuak:

1. Euskara ikas- eta irakats-hizkuntza izango duen eredu orokortu inklusiboa.
2. Euskal kultura ardatz izango duen euskal curriculumua.
3. Hezkuntza ez-arautua osorik euskaraz garatzea.

Eskaera hauekin ados bazaude, hemen sinatu dezakezu: [www.euskaragehiago.eus](http://www.euskaragehiago.eus)

Sinadurak jasotzen lagundu nahi baduzu, webgune horretan aurkituko duzu informazio eta material guztia.

Eskerrik asko!

### Whatsapp/Telegram mezua:



**\*SINADURA BILKETA\***

Hezkuntzak euskara gehiago behar du!

Sinatu orain euskara eta euskal kultura EAEko Hezkuntza Lege berriaren ardatz izan daitezen.



**\*<https://euskaragehiago.eus>\***

### Sare sozialetarako mezua:



SINADURA BILKETA

Hezkuntzak #EuskaraGehiago behar du!

Sinatu orain euskara eta euskal kultura EAEko Hezkuntza Lege berriaren ardatz izan daitezen.



<https://www.euskaragehiago.eus>